

**Arantzazu - Euskaldunen Beila - 2010ko Uztailaren 14ean**  
(Eg 1, 12-14 - 44. Salmoa - Jn 2, 1-11)

Ezteiak ziren eta arnoa faltatu.

Bainan beharrik han bazen emazte paregabe bat, orori ohartzen zena, beti prest zerbeit zerbitzu egiteko ; ixil ixila egin baitzuen behar zena.

« Egizue erranen dautzuen » eta zerbitzariak, Mariari behatuz egin zuten Jesusek errana. Ura arno egin zuen hitz batez Jesusek, arno « ahotik ezin utzia », famatuenak baiziren bilakatu Kanako eztei horiek. Oro baitziren bozkariotan.

Zer erran nahi dauku Jondoni Joanik Jesusek egiten duen lehen ageraldi huntan ?

Egia erran ez ote da, Kanako arnorik gabeko apairu hau, gure gisartearen idurikoa. Iraunkor alegantzia eta bozkarioa galtzeko lanjerian den gisartea !

Zerk edo nork emanen dio galtzen ari duen bestarako gutizia...

Ez daki nun aurki egiazko bozkarioa ! Ez daki nun den bere bihotza poztuko duen arno berria ! Ez daki nun hartu behar duen egiazko argia !

Kanako ezteilierek ez zakiten Jainkoa bera heien erdian zutela, heiekin kantuz, heien auzo, heien etxetan zurgin langile.

Gaurko munduak berdin ez daki Jainkoa bere ondoan, bere bideetan dagola.

« Jainkoak hain maite izan du mundua nun igorri baitio bere semea... » dio Jondoni Joanik.

Mendea jin mendea joan, Jainkoak igorri zituen bere mutilak, profetak, jujeak... azkenean igorri du bere Semea... 30 urtez ixilik herritaren artean, 3 urtez herriz Herri bere Aitaz mintzo, 3 egun bere Bazkoan herioa garraituz, denek parte izaiteko Jainkoak urririk ezkaintzen daukun bizi berrian, bozkariozko arno berria eman ez Eukaristia bakoitzean.

Zer egin beraz Jainkoa ganik heldu den bozkarioa galtzerat ez usteko.

Entzun dezagun Jesusen eta Elizaren Amaren deia, gaur Arantzazuko Amaren deia :

« Arnorik ez du munduak, trixte da jendea, gerla, gosete, berexete, Elgar ezin jasan, jeloskeri... Emozu behar duena. Ez ote zira zu Eliza Kristo nere semea ? Ez ote duzu Kristo jauntzi bataio egunean ? Ez ote zira Kristoren gorputza ? Emozu mundu huni edarri berria ?

Ainitz bazirezte girixtino haurrideak bide berri hori lotuak... segi sortuz Eliza berria, mundu hunek behar baititu ainitz gisetako apostolu berriak.

Gaur bezala izan beti beilari, denak utzirik, gogo libre : beha norat doan zure bizia : zure Geroan baita, gaurko egin bidearen iturria.

**Jesus 30 urtez** ixilik izan den bezala, hurbil zaite zure haurrideetatik, bizi anaitasuna, elgarren zerbitzua, laguntza, maitasuna, familietan, herrian, eskola, lantegi, elgarren arteko har emanetan ... Izan zuzena, hitzekoa, onesta. Elgar maita eta errespeta ... Bat egin Jainkoaren gogoko gizonekin... Mundua Jainkoak maite du... Kristo hiletarik piztua hor dago denen artean ... Ez da mundua Jainkoaren kontra bainan ez daki zonbatetaraino duen Jainkoak maite. Izan zaite ixil ixila, altxaharria ogi pastaren erdian bezala, Jainko maitearen amodio lekuko.

Egizue erranen dautzuen :

Amodio haundiena : nor berak bere bizia emaiten haurrideentzat...

Besteek zuretzat egitea nahi duzuna, egizu heientzat

Elgar maita nik maite zaituztedan bezala.

Jesus 3 urtez mintzo... Ez beldurrik izan Jesus aipatzeko, hunek errana salatzeke, Ebanjelioa zabaltzeko... eman zure fedearen arrazoinak... nundik eta nola duzun bihotzeko bozkario hori. Eta hortarako irakur eta bihotzean har Ebanjelioa. Ainitz girixtinoek ez dute Ebanjelioa ezagutzen eta berdin sekula irakurtu ere. Nola Jesus aipa jakin gabe zer erran duen, zer egin duen...

Egizue erranen dautzuen :

Zoazte eta zabal Berri ona

Bataizkitzue, Aitarene, eta Semearne eta Izpiritu Sainduaren izenean

Nori ere lurrean barkatuko baituzue, zeruan ere barkatua izanen zaio

Azkenean, arnorik hoberena... 3 egunez, Jesusen Bazkoa, odola ixuriz, bizia emanaz, arno berriaren ixurtzeko orena. Bataioa eta Eukaristia dira Bazko berria : Jainko Aitarene eta gisartearen arteko batasun edo ezteien eguna.

Eukaristian, Jesusen bazkoan duzu zure sortze berria, izaitea, bizia eta geroa...

Egizue erranen dautzuen :

Ni naiz zerutik jautzi ogia bizia...

Ogi hau jaten eta arno hau edaten duenak badu betiereko bizia.

Dohatsu hunen mahainerat deituak...

Sar gaiten orai barnago Eukaristia huntan, Jesusen Bazkoan, Arantzazuko Ama gidari. Eztei berriak dira hemen : Jainko Aitak bere populuarekin batasun berri egiten du Jesus dela medio.

Gaur komunionean Jainkoarekin bat egiten dugunak, izan gaitezen egun oroz, nun nahi izanik, Eliza berri, batasun berri, munduak, Jesusen baitan, aurki dezan bozkario bide berri.

**Jean Eliçagaray, apeza.**